IMH Elgoibar 2009/10/22	HITZALDIA	
	Don Bosco-ko Lanbide Heziketako Ikasleen lantokiko prestakuntza euskaraz **Erakundea: DON BOSCO GLHBI, OARSOALDEAko euskara zerbitzua, AHIZE-AEK.** **Hizlariak: Carlos López (D.Bosco), Joxe Luix Agirretxe (Oarsoaldea), Mikel Urdangarin (Ahize-AEK)**	

Sarrera

Egun Lanbide Heziketako zikloak euskaraz ikasteko aukera egon badago, baina lantokiko praktikak oraindik gaztelaniaz egiten dituzte D ereduko ikasleek. Oarsoaldeko lau udalek (Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia), GMLHBI Don Bosco ikastetxeak eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ikasleei enpresetako praktikak euskaraz egiteko aukera bermatuko dien metodologia bat diseinatu eta zabaltzeko helburua duen esperientzia pilotua jarri dute abian.

Laburpena

- **Proiektu honen helburua esperientzia honetatik protokolo bat ateratzea da.**
- **Honek ahalbideratuko du prozesua sistematizatzea eta beste eskualde edo ikastetxeetara esportatzea.**
- **Proiektuan Eusko Jaurlaritza eta Udaletxeak egotea oso garrantzitsua da.**

- Lanbide Heziketa euskaraz ikasten ari direnek ikasketa prozesua osorik euskaraz burutu ahal izateko.
- Orain arte euskaraz egin diren praktikak zorizkoak izan dira
- Prozesua: Enpresak hautatu, Enpresen praktika alorraren diagnostikoa, Helburuak eta ekintzak adostu, gauzatu, praktikak gauzatu eta proiektuaren ebaluazioa.
- Proposatutako helburuak: Bermatu Harrera eta Instruktoreak / Aurrerapausoak eman: ikaslearen paisaia eta dokumentazioa.